



“BEREZKO GOBERNUA JOMUGA BADA, EZIN DIOGU ARROTZA ZAIGUN GOBERNUARI BETI MEN EGIN”

Maitane Aldanondo, Irutxuloko hitza (2010.03.18)

Bi hitzetan - Kepa Anbitarte (Politikari eta sindikalista ohia)

Antiguan bizi den Kepa Anbitartek (Pasaia, 1934) iritzi politikorako Orreaga taldeak antolatutako La figura politica del lehendakari Agirre hitzaldia emango du, Koldo Mitxelena Kulturunean, astelehenean, 19:00etan. Egun horretan bertan, mende erdia egingo du Agirre Parisen hil zela. ELAko ordezkari gisa Frantziako hiriburuko Gizarte Ikasketen Nazioarteko Institutuan ikasketak burutzen ari zen Anbitarte gertakariaren lekuko izan zen. Heriotzaren aurreko 15 bat hilabeteetan Agirrerekin izandako uneetatik jasotako testigantzaren berri emango du Anbitartek, irakasgai haiek egungo euskal politika nazionalaren erreferente izan beharko luketela uste baitu.

Maitane Aldanondo: 50 urte geroago, Jose Antonio Agirreren politikak erabilgarri izaten jarraitzen al du?

Kepa Anbitarte: Bai, politika, politika da. I. mendean, XX.ean eta XL.ean, politika, etengabeko norgehiagoka da. Egoera aldatu egin da, baina aldi guztietan erabili behar da borrokaren metodologia; modu arrazionalan, euskal gizartearen giza garapenari dagokion bezala.

M. A.: Agirre bizi artean oztopo izan zela diozu. Zergatik?

K. A.: Espainiako alderdi errepublikarrak boterea lortzeko erabilitako estrategiek Eusko Jaurlaritzara edukiz hustu zuten. Hasierako unera itzuli nahi zuten, eta Agirre lehendakaria eta Jaurlaritzara boterea berreskuratzeko oztopoa ziren. Niri eta beste hainbati aitortu zigun moduan, Agirrek nazio ohore auzi bilakatu zuen erakundeak aurrera egitea. Herriak berari emandako lekukoa zen eta berak herriari itzuli nahi zion. Azken urte horietan erakundea edukiz ia hustuta bazegoen ere, gorde egin zuen eta bera hil arte ez zen desagertu.

M. A.: Urteotan bere ideiak galdu al dira?

K. A.: Askok gara berreskuratu nahi ditugunak, baina hori galarazten duten baldintzak daude. Nagusia, euskal nazionalismoaren atal guztien ahuldade ideologikoa. Hauek guztiak onbideratzea eta suspertzea beharrezkoa da, munduko beste edozein herrirena bezalako gobernuak lortzeko gai izango diren lerro estrategikoak zehazteko.

M. A.: Historiari erreparatuz, askatasuna lortzeko zer ez da egin behar?

K. A.: Berezko gobernuak jomuga bada, ezin diogu arrotza zaigun gobernuari beti men egin.

Nagusi diren estatuak bortxaz ezartzen dutenaren aurrean beste aukerarik ez dago, baina abagune asko daude ez obeditzeko. Bestalde, ezin dugu etengabe besteen ideologiatik edan. Gure ideologia garatuta dago; estrategia eraginkorra da behar duguna abian jartzeko.

M. A.: Zer egin behar da?

K. A.: Indarrak printzipio horren inguruan batu behar ditugu. Estrategia eraginkorra izan dadin, helburua estrategikoa izatearekin ez da nahikoa. Beharrezko baliabideak \neg giza baliabideak, kulturalak, espiritualak, materialak... \neg jarri beharko ditugu, utopia bilakatu ez dadin.

M. A.: Politikarien aldetik konpromisoa falta al da?

K. A.: Ez dute ezinezkotzat eman, baina bada nagikeriaren antzekorik hainbatetan, berariaz nire ustez, halabeharrez integrazio totalitariora garamatzana. Menpean gaituen Estatu guztiz totalitario da eta behin barnean zaudela irtetea oso zaila da. Horretarako politika baliatu behar da.

M. A.: Zapalketatik irteteko izandako aukerak galdu direla diozu. Gehiago izango ote dira?

K. A.: Noski. Zapalkuntza egoeran dauden herriei dagokienez, nazioarteko politikan beti ematen dira aukerak. Ziur naiz gehiago izango direla. Krisi ekonomikoak ekarri duen Estatuaren ahuldadea aukera aparta izango zatekeen, baina ez dago egoera baliatzeko gai den klase politikorik.

M. A.: Politikariak etorkizuneko abaguneak aprobetxatzeko prestatu beharko lirateke, beraz?

K. A.: Uneoro prestatutako klase politikoa izan behar da, erabakietan irmoa eta ahaleginak gune berean batzeko gai izateaz gain, etsaiaren borondatea makurtuko duena.

“Politika etengabeko norgehiagoka da. Egoera guztietan erabili behar da borrokaren metodologia.”

“Zapalketatik irteteko aukerak baliatzeko gai den klase politikorik ez dago.”